

GAIXOTASUNA GOIZ ATZEMANEZ GERO, %90 KASUTAN SENDATZEA POSIBLE DELA ESAN DUTE JAKITUNEK BILBON

# Anorexia emakume gazteen artean gaitz mentalik hilgarriena dela diote adituek

■ Elikadura Gaitzetako Eskuhartze Bio-Psikosozialaren I. Nazioarteko Kongresua egiten ari dira Deustuan

■ Anorexiagatik beste edozein gaitzengatik baino hamabi aldiz emakume gehiago hiltzen da 15 eta 24 urte bitartean

■ Gaitz horien eragin zehatza jakin ahal izateko inolako ikerketa epidemiologikorik ez dela egin azpimarratu dute adituek

I. Olabarri / Bilbo

ANOREXIA ETA BULIMIA izan ziren mintzagai atzo hasi eta uztailaren 8a arte iraungo duen Elikadura Gaitzetako Eskuhartze Bio-Psikosozialaren I. Nazioarteko Kongresuan. Aldakuntzak antolatu du kongresua. Parte hartzen ari diren adituek jakinarazi zuten, anorexiak beste edozein gaitzek baino hamabi aldiz heriotza gehiago eragiten du 15 eta 24 urteko emakumeen artean.

Vicent Josep Turonek, Bellvitgeko Ospitaleko Psikiatria Saileko arduradunak esan zuenez, «anorexia duten pertsonen %20 gaixotasun horren erruz hiltzen dira. Hala ere, anorexia eta bulimiaren ondoriozko heriotzak estalita geratzen dira, bihotzeko bezala agertzen dituztelako txostenetan».

Anne Vandeputte doktore belgikarrak, berriz, eritasunok garaiz harrapatzeak duen garrantzia nabarmendu zuen. «Batez beste, kasuen %65 edo %70 sendabidean jartzen ditugu. Hala ere, gaixotasuna goiz tratatzen hasiz gero, %90 sendatzeko gai izango ginateke».

## Sendagileen arteko elkarlana

Sendagileen arteko elkarlana ere funtsezkotzat jo zuten adituek atzoko prentsaurrekoan. Anorexia kasuak bulimia kasuak baino errazago atzematen direla esan zuten. «Bulimia dutenek itxura ona izaten dute normalean. Kasu askotan, haginlariek azaleratzen dituzte bulimia kasuak. Botaka sarritan eginez gero, hortzetako esmaltea hondatzen da, eta horrek azterna bat eskaintzen digu sendagileoi».

Familiak ere aparteko garrantzia du gaixoaren sendatze prozesuan. Euskal Herrian senideen arteko loturak mendebaldeko beste herrietan baino estuagoak



Turon, Vandeputte eta Garfinkel doktoreak, kongresuaren aurkezpen ekitaldian.

direla esan zuen Turon doktoreak. «Guk senideak erabiltzen ditugu terapeuta bezala, eta arrakasta maila aipagarria erdiesten dugu».

## «Ez dago glamour-ik anorexian»

Komunikabideen aldetik anorexia *glamour*-aren munduarekin lotu dela salatu zuen Paul Garfinkel doktoreak, Torontoko Clark Institutuko Psikiatria buruak. «Ez dago inolako osagarri *glamour*-dunik gaixotasunotan», esan zuen.

Hala ere, modaren munduak anorexia eta bulimia gaixotasunen ugaltzean zeri-kusirik izan duela onartu zuten arren, hori ez dela arrazoi bakarra azpimarratu zuten adituek. Garfinkel doktoreak, esate baterako, adierazi zuen gaixotasun horiek duela 300 urte ere ezagunak zirela, eta pertsonen izaerarekin lotutako arazoetatik datozela.

## sintomak

## Kezkatzeko moduko jokabideak

■ Pertsona batek elikadura gaitzen bat duen jakitea erraza ez dela jakinarazi eta gero, susmoak pizteko moduko jokabideen zerrendatxo eskaini zuten adituek. Paul Garfinkel doktoreak, Torontoko Clark Institutuko Psikiatria buruak, gaitza atzemateko hainbat aholku eman zituen atzoko agerraldian

**Gero eta helburu gogorragoak** • Garfinkel doktoreak oso ohikotzat jo zuen nerabeek dietak hastea. «Baina nerabe horrek helburutzat jarri zuen pisu hori behin eta berriz jaisten duenean, 65 pisatu eta 60era jaitsi nahi du eta gero 55era... Hori kezkatzeko zeinu bat da», esan zuen Garfinkel.

**Gero eta kritikoagoak** • Gero eta pisu gutxiago izan arren, norbere gorputzarekin gero eta kritikoago bihurtzen dira anorexia eta bulimia dutenak, Garfinkel doktoreak jakinarazi zuenez.

**Gero eta itxiagoak** • Gero eta itxiagoak bilakatzen dira gazte horiek. «Aldendu egiten dira mundutik, dieta hasten duten urtean eskolan eta lagunekin normaltasunez jokatzeko badute ere».

**Hilekorik eza** • «Ia emakume guztien kasuan, hilekoa gorputzean duten koipe mailarekin harremanetan dago», jakinarazi zuen Paul Garfinkel doktoreak. Kezkatzeko beste sintoma batzuk hauk omen dira: jatekoak zaborretara botatzea, eta jan eta berehala komunera joatea.

«Administrazioak ez ditu onartzen datuak»

■ ANOREXIA eta bulimiaren inguruan plazaratzen diren datuek kontraesanak sortzen dituzte administrazioak darabiltzan eta kaltetuen elkarteek eta adituek darabiltzaten datuek artean. Batzuek eta besteek datu desberdinak izaten dituzte esku artean. Iaz 1.200 kasutik gora tratatu zituztela esan berri du Osakidetzak. Nafarroan 300 gazte direla aterra dute argitara. Aldakuntza elkarteak eskainitako datuen arabera, 1999. urtean 20.000 kasu inguru izan daitezke EAEn.

Datu horiek direla eta, Turon doktoreak harridura agertu eta zera galdetu zien prentsaurrekoan zeuden kazetariei. «EAE Europa da ala ez da? Hemengo neskek, Belgikakoek eta Frantziakoek antzeko apetak dituzte arropan, kulturen eta alor guztietan. Europa mailako ikerketa serioek kopuru horiek ateratzen badiutuzte, hemen ere, Europako partaide izanik, inolako arrazoirik ez dago antzeko datuak ez izateko. Azaldu egin beharko dute ea zergatik duten gaixotasun horiek eragin gutxiago hemen. Bellvitgen, esate baterako, urte-tik urtera %20 igotzen dira».

«Politikariek ez dituzte onartu nahi kopuru horiek, eta ez dituzte hori konpontzeko neurriak hartu nahi», Turonen irudiko.

Aldakuntzako kideek ikerketa batetik atera dituzten datuen arabera, Bizkaiko eskoletan, batez beste 15 ikasleko gela bat oinarritzat hartuta, gela bakoitzean bi edo hiru ikasle dira anorexia edo bulimia izateko bidean.